



EUSKAL KANTA BERRIEI BEGIRATU BAT

POR LETE

Ez dakigu zergatik kantatzen den. Baina kantatzea, sentipenak eta ideiak kantaren bidez adieraztea, gizonen betiko ohitura izan da; instintuari jarraituaz edo, mendetan zehar egin izan ohi dugun zerbait. Harriarotan, gure aurrekoak harkaitz zuloetan bizi ziranean, kantua, ziur asko, orru bat izanen zen; orru estilizatua, agian. Harriarotik telebisio-arora dijoan tartea ez da hain handia, hala ere. Bitartean solfeoa asmatu da, eta hit-parade diralakoak ere bai. Baina funtsean ez dut uste gauza asko aldatu denik.

Konprenigarria da, bai, kantatzen dugunean gure jardunari arrazoi logikoa arkitu nahi izatea; intentzio aldetik, batez ere. Hau gaur egunean oso modan dago; arreta handia jartzen zaio arrazoimendu horri, eta ongi iduritzen zait. Baina arrazoi logikoen azpiagotik, lehen indar eragikorra bezala, arrazoi majikoren bat ere egon liteke; edo hain zuzen majikoa ez bada, instintiboa edo holako zerbait. Jakiña dago instintoek atabismorik izatez gaiñera beste naturaleza bat badutela; gure norberatasunean finkatuta dauden ezaugarri guzien naturaleza

berezia. Gu egoera berezi baten kondizioetara behartuak gaudenez gero, gure instintoak ere kondizio horien seinalea daramate eta azkenik, instinto horiei gure interesen, intentzioen eta usteen arabera zentzu edo espresio logiko bat ematen saiatzen gera.

Zailla iduritzen zait beraz «nik honegatik edo horregatik kantatzen dut» esatea; zailla, batez ere, egia osoa adieraztea. Badakigu zer nahi dugun edo dakigula uste dugu. Baina ezin gintezke oso ziur egon, eta, batez ere, komeni da noizik behin ziurtasun horiek zalantzaren kakotik zintzilik jarri eta gure jardunaren kondizioak aztertzea.

Lehenik, nik aztertzen eta kantatzen dudana —kantatzen dugun— kanta klasea, gaztelaniaz «popular» eta euskeraz «herrikoia» izenekin ezagutzen duguna da; hau da, musikal kultura eta formazio haundirik ez duen jendeak ere sortu eta entzun lezakeana. Oso teknika landuaren beharrik ez duen kanta klasea, eta, era berean, kultura forma biurri edo eskolatuen saillean sartzen ez dena. Kantaera horren osagarriak hauek dira, batez ere: sensibilitatea, intentzioa, musikal intuizioa eta irudimen poetikoa. Osagarri horiek oinarri bezala hartuta, ohiturazkoa dugun hiru edo lau minututako «kanta»ren e-
struktura zutitu genezake (probisionalki bederen).

Hor dugu ba gure kanta. Eta zer gehiago? Musika gaietan eskolatuen kritikak entzunez gero, kantaera horrek ez du asko balio. Ezin gintezke gaur hori eztabaidatzen hasi; hortaz kriterio ezberdiñak daude, baina, hala ere, kanta herrikoien fenomeno hori ezin liteke bi hitzekin bazterreratu. Hor dago jenero bezala, gertakizun soziologiko bezala, eta aurka joatea suizidio mota bat izanen litzake; guk euskeraz kantatzen ez

badugu, besteak erderaz kantatuko dutelako. Garbizaleak eta goi-mailla zaleak izateko, hontan, beste espresio mota guzietan bezala, indartsuak izatea da beharrezkoa. Nere ustez, orain presatuak gabiltza bestek kendu diguten sailla irabazi nahian, gureganatu nahian, eta izugarritzko kalitatearen esijentzia hori, alde hortatik begiratuta, astakeria bat litzake. Raphael eta Massielek ez dakite solfeo askorik, eta horien arnasa ez da «goi-arnasa» alajaina. Baina...

Hala ere, gure teknika eta preparazioa hobetu behar ditugu. Hori, beste batzuen artean, problema haundienetako bat dugu. Erraxkeria gatik kantari zabarra izatea, desafinatuz kantatzea, musikarako tajurik gabe doiñuak egiten jardutzea, bertso patalak sortzea eta horrelakoak ez zaizkio hontaz gero iñori onartu behar.

Gure argibiderako, zorionez, Euskal Herrian aspaldidanik kantatu izan da horrelako kanta klasea. Kanta zaharrek, eta beste izenekin ezagutuek, benetako musika-jenero herrikoia osatu dute. Ez gera hortan lehenengoz hasten. Bildumetan agertzen den bezala, oso aspaldidanik gaur arte herriak bere erara kantatu izan ohi du; era guzietako kanta horiek gure herriaren, bere kondairaren, sozial gertakizunen, bizieraren, sinestapenen, uste, nahi eta sensibilitate berezi baten testigutza egin dute. Kanta horietatik soziologo edo etnologo batek milla aztarren interesgarri atera lezazke; musiko batek zer esanik ez, doiñuen egitura, inspirazio eta influentziei begiratuaz, batez ere. Uste dut gure kanta zaharrak benetako «sozial kantak» deituak izan ditezkeala, deitura horren sentidurik zabalenean (1).

Forma horiek, beraz, kultura oso baten kontestean ezartzen dira, eta esan genezake kanta herrikoiak, nahiz eta umillak izan, benetan kultuak direla. Sinestu behar da Europaren industrietan garaia arte, ia gure herriaren kultura-espresio aberats eta jatorritzko bakarra kanta izan dela, bere era guzietan. Industrializatzeko garaian, eta naziotasunaren posibilitatea zeharo galtzean, kultura forma hori gure beste forma eta ezaugarri guziak bezala, bazterreratua eta ilundua geratzen da. Hortik aurrera, eta ejemplu bakar batzuek aparte (Bilintxen bertsoak adibidez), gure hirietan erderakadak kantatzen dira, izugarritzko babokeriak (2). Garai artako salbazioa bertsolariak izan ziren (3).

Geroago berbizte bat gertatu zen. (Lizardik zion bezala: berbizkunde berria maiteak yario, itzik ezin eta irria ain ezti dagio). Mende honen hasieratik azkeneko gerlaraino, hain zuzen. Estudioak egin ziren. Azkuek bere bilduma agertu zuen, eta euskaldunak beren jatorritzko kulturaren harira etortzen saiatu ziren. Ia berehala, ordea, azkeneko kankarrekoa hartu genuen, eta handik aurrera gertatu diren erderazko kulturaren inposizio guziek bilutsik arrapatu gaitue. Kanta aldetik zer esanik ez. Diskoetan, radio eta telebisionen ez dugu gure hizkuntza jatorritzkoan hainbeste urtetan tutik ere entzun (4). Hemen egon gara gure kantaera jatorritzkoaren nahia beste era sakabanatuago batzuetan aseaz. Sasi-folklore, sasi-kanta eta sasi-festa ugari ibilli da hemen inguru azkeneko hoge-ta-hamar urte hauetan. Gauza guziak ez ziren txarrak,

baina ezin ukatuko dugu nortasun aldetik ipurdia agirian ibilli dugula.

Gero bat-batean, orain lau edo bost bat urtetik honantz, gauza zeharo aldatzen hasi zen. Kataluniako ejemplua, folk amerikatarra eta beste faktore batzuek zirela medio, jendeari kantatzeko gogoak sendo heldu zion, eta gauek goizera kantari berrien fenomenoaren aurrean topatu ginen (5). Denok kantatzen genuen. Kezkarik zeukan guzia, zerbait esatekorik bere barruan nabaitzen zuena, kitarra artu eta orrua botatzen hasi zen («orru estilizatu»...). Batzuek sortzen, besteak imitatzen, bakoitzak ahal zuena egin zuen, Herrietako festetan, jaialdietan, frontoi, teatro eta enparantzetan (elizetan ere bai azkenik) publikoak kantari berri hauek ikustera eta entzutera ohitu zen, eta mitifikazio baten usai hala moduzkoa ere zabaltzen hasi zitzaigun izen eta esan-nahi batzuek zirela (ginela) medio.

Honalakoetan gertatu ohi den bezala, uste dut gauza behin baino gehiagotan neurritik atera zela, baiña bai eta ere uste dut jendearen berotasun guzi horiek halako ohargabeko faltsukeria batez ukituak zeudezila: jendeak kantaria mitifikatzean, bere burua mitifikatzen zuen hain zuzen; edo, hobeto esateko, mitifikatze hura bere gustoko irudi mitiko bat objeto bezala hartuta egiten zuen. Norbaitek esanen du horren errua kantariena zela, eta ez dut osorik ukatuko; estimatua eta famatua izatea edozeini gustatzen zaio. Baina uste dut, bai eta ere, kantarien dinamika, askotan, ikusleena baino azkarragoa izan dela, eta imajina hura hautsi nahi izan dugunean, edo uste gabe hautsi dugunean, jendeak ez digula ia batere lagundu. Azken finean gainera jendea azkar aspertzen da.

Gaurko kantarien egoera oso ezberdina eta nahasia da, egoera orokarren arabera. Oso kriterio parziala dago, batetik, kultura mota hau juzgatu eta baloratzean. Bestetik, oportunitateak ere agertu dira, eta ziur nago kantua, produkto bezala, gehiago komertzializatzen denean, oportunismo hauek haundiagotuko direla. Hala ere beharrezkoa zaigu kanta, kultura produkto bezala, zabaltzea eta sendotzea (beste era hortako produkto guziak bezala); baina beldyr naiz komertzializatzeko hori kriterio sano batekin egiten ez bada, hamaika tentelkeria gertatuko dela. Distribuzioa eta propaganda kalitatearen serbitzurako jarri behar baitira, eta ez aldrebes.

Bestalde, lehen aipatu dudako mitifikazioak serbitzutasun bat ezarri digu kantariei. Gauza baten aurka egonen naiz beti: kantari baten edo artista baten lana funtzionaltasunaren aldetik bakarrik estimatua izatearen aurka, alegia. Hau hobeki esplikatua nahi dut.

Kultura ez da «ente» bakarti edo abstrakto bat, noski. Kultura, jakituria denez gero, naturalez eta gizonaren arteko erlazioen jakitea da; bai eta ere, gizonen eta giza-taldearen eta gertakizunen ikuspen sakon eta osoena, egoera berezi baten kondizio eta influentzien erdian sortzen da. Horregatik, kultura eta kulturaren produktoak ez dira abstrazio total bat, referentzia partziala baizik. Baina referentzia horietan sakontzen joatea, referentzia horren argitasuna eta

sakontasuna gero eta haundiagoak izan ditezen saiatzea beharrezkoa da. Hori dela eta, gelditasuna oso kaltegarria izan liteke. Kantari bat ezin liteke «honako egoera hontan» «halako pentsamolde edo postura» baten altaboz hutsa izan. Ez dakit kantaria herriaren serbitzurako izan behar dela esatea ondo dagoen ala ez; baina nola nahi ere, serbitzutasun hori ezin liteke hiru edo lau ideia edo iritziren, hiru edo lau gairen repetitze bezala ulertu.

Kantariak bere nortasunaren aberastea billatu behar du, eta, era berean, entzulearena ere bai. Errealitatearen eta subjetoaren artean sintesis bat gertatzen ez bada, eta sintesisa hori, ikus-molde edo senti-molde bezala gero eta sakonagoa, gero eta aberatsagoa ez bada, ez du merezi «askatasuna», «justizia» eta horrelako hitz hutsak esateko bakarrik ahoa irikitzerik. Azkatasuna, justizia eta abar, mamiz eta signifikazioz bete behar dira; eta signifikazio horien monopolioa inork ez dauka.

Ez gintezke, beraz, funtzional hutsak izan, nahiz eta batzuek horrela uste. Batzueri entzunaz, badirudi kulturaren martxa guzia berek jotzen duten txilibituaren aginduetara jarri behar dela. Herriak «honela» edo «horrela» nahi omen duelako, noski. Bai; nola ez. Herriaren borondatea interpretatze hontan jende pizkor asko dabil inguru hauetan. Baina kantariak ere herri gera Herria dira, bai eta ere, herritasun berearekin, euskaldun tontoena edo listoena. Baina biok ez dute arrazoi berdina.

Gaurtik begiratuta, zail da esaten euskaldun kantarien etorkizuna zer eta nolakoa izanen den. Etorkizuna, behar bada, illuna izango da. Hamaika nahasketa sortuko da alde guzietatik, eta nahasketa horien sareetan maiz eroriko gara. Zailtasun eta kontradizioak eguneroko ogia izanen dira. Gai honi buruz mila puntu ikuitu liteke eta hitz asko egin. Hala ere, oraingoz orain pikotara joan ez gaitezen bide bakarra geratzen zaigu: beti gu eta beti hemen, lanean ahalik eta jatorren jarraitu.

Oharrak

(1) Banderizoen burruketatik hasi, Xuberoako hamasei eta hamazazpigarren mendeetatik pasa, eta gaur arte, gai eta gorabehera askori buruz hamaika kanta bikain egin da gure herrian.

Kanta hauek bildu dituen jendea izan da, zorionez, gure artean. Bilduma horietan osoenak eta beharrezkoenak hauek direla esan diteke:

Resurrección M.^a Azkue -ren bilduma.

J.D.J. Sallaberry -rena.

Aita Donostia -rena.

Aita Riezu -rena.

(2) Ezin dira ahaztu, hala ere, Iparragirre bezalako tipo baliotsu eta bakartiak. Hauen lana eta esan-nahia oso jatorra eta garrantzitsua izan zen.

(3) Nork ahaztu lezazke Txirrita, Xenpelar, Pello Errota, Udarregi eta beste hainbeste bertsolari bikain. Txapela kendu behar euskaldun poeta eta kantari herrikoi hauen aurrean.

(4) Escudero, Garbizu eta musiko nagusiek egin duten lan kultoa ezin da ahaztu inundik ere. Baiña hauek beste maila sakon eta zailago batean jardun dira, ifloren laguntzarik gabe. Horregatik beren lana ez da herri maila batean oso ezaguna izan; eta pena da.

(5) Esan behar da mugimentu honen eragillea, neurri haundi batean, Mitxel Labéguerie izan zela, bere kanta aberats eta emozioagarriekin.